

II. BERDINTASUN PLANA EKINTZEN PROPOSAMENA



II.BERDINTASUN PLANA



II.BERDINTASUN PLANAREN PROPOSAMENA

Datozen lerroetan Elgoibar Ikastolan II. Berdintasun Planak 901/2020 lege dekretuaren baitan jaso beharreko lan ildoak, helburuak eta ekintza zehatzak jasotzen dira. Proposamen hau landu ahal izateko prozesuaren lehenengo fasean entitatean burutu den diagnostikoaren emaitzak hartu dira kontuan.

Lehen proposamen honetan II. Berdintasun Planaren lan ildoak, helburuak eta ekintza zehatzak adierazten dira eta hauek aztertu eta ontzat (bideragarritasuna eta egokitasuna aztertu ondoren) eman ahala, ekintza bakoitzaren exekuziorako arduradunak, aurreikusitako epeak, beharrezko baliabideak eta jarraipen zein ebaluaziorako adierazleak finkatuko dira, planaren kudeaketarako hainbat jarraibiderekin batera.

II.BERDINTASUN PLANA




II.BERDINTASUN PLANAREN EGITURA

Aurreikusitako helburuak garatu ahal izateko, Elgoibar Ikastolaren II. Berdintasun planak honako **atal** hauek jasoko ditu, eta atal bakoitzak ondorengo **irizpideak** jarraituko ditu:

	ATALAK	IRIZPIDEAK
ELGOIBAR IKASTOLA	• Berdintasunerako neurri orokorrak • Sentsibilizazioa eta formazioa • Kontziliazio erantzunkidea eta denboraren erabilera • Lan hautaketa prozesuak eta promozioa • Soldata politika • Hizkuntza eta Komunikazioa • Lanean jazarpen sexual eta sexistaren prebentzioa • Lan arriskuen prebentzioa genero ikuspegitik • Bezeroak eta hornitzaileak	• Helburu orokorra • Helburu zehatzak • Helburuen lorpenerako ekintzak • Helburuen eta ekintzen gauzatzerako arduradunak • Ekintzak garatzeko epe-mugak edo datak • Ekintzak garatzeko beharrezko baliabide materialak (aurrekontua) eta pertsonalak. • Ekintzen eragina eta helburuen lorpena neurtzeko adierazleak

Hauetz gain, Elgoibar Ikastolaren II. Berdintasun Planak kudeaketa zein ebaluaziorako metodologia eta ekintzen jarraipen zein ebaluaziorako orriak jasoko ditu.

II. BERDINTASUN PLANA



II. BERDINTASUN PLANAREN XEDE NAGUSIA

- ➔ Elgoibar Ikastolan I. Berdintasun Planaren garapen zein II. Berdintasun Plan honen elaborazioarekin orain arte eginiko ibilbideari jarraipena ematea, II. Berdintasun Plan honetan agertzen diren lan ildoak, helburuak eta ekintza zehatzen ezarpenaren bitartez emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren bidean urratsak ematen jarraitzeko.
- ➔ Emakume eta gizonen arteko berdintasuna ikastolaren estrategia orokorraren eta kudeaketa ereduaren ardatz bilakatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasun errealaren bidean lorpenak eman daitezen eguneroko jardunean beharrezkoa den zeharkakotasuna landu eta bermatuz.
- ➔ Hezkuntza arloko zein inguruko bestelako entitateei (publiko zein pribatuak) begira emakume eta gizonen arteko berdintasunerako erreferentzia bezala kokatzea.
- ➔ II. Berdintasun Planean agertzen diren lan ildo, helburu eta ekintzen garapenaren bitartez, eguneroko hezkuntza jardunaren esparru guztietan genero ikuspegia erabat eta sistematikoki txertatzea.

BERDINTASUNERAKO NEURRI OROKORRAK

01

HELBURU OROKORRA

Elgoibar Ikastolan II. Berdintasun Plan honetan aurreikusten diren lan ildoak, helburuak eta ekintzak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak (materialak eta pertsonalak) bermatzea, entitatean emakume eta gizonen berdintasunarekiko konpromisoa berretsiz eta orain arteko ibilbideari jarraipena emanez.

Helburu zehatza 1

Elgoibar Ikastolaren estrategia orokorrean eta kudeaketa ereduan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen jarraitzea.

Ekintzak:

1.1.- Emakume eta gizonen **berdintasunarekiko zuzendaritzaren konpromisoa** ezagutzera eman ikastolan ohikoak diren kanalak erabiliz (Web orria, harrera espazioan, sare sozialetan, ikasturte hasierako guraso bileretan...)

1.2.- II. Berdintasun Planaren diseinua, ezarpena, jarraipena eta ebaluazioaren garapen eta koordinaziorako prozesu honetan sortutako **berdintasun lan taldea (Negoziazio Mahaia) mantendu** eta bere jarduera modu egokian burutu ahal izateko behar dituen baliabideak eskaini eta bermatu (dedikazio orduak, beharrezko formakuntzak, baliabideak...).

1.3.- Berdintasuna **entitatearen estrategia orokorrean eta kudeaketa ereduan** barneratzea, langilegoaren asebetetze mailaren adierazleen artean txertatuz.

1.4.- II. Berdintasun Planean aurreikusitako lan ildoak, helburuak eta ekintzak garatzeko **urtero Ekintza Plana** diseinatu.

1.5.- Bi urtean behin II. Berdintasun Planaren **jarraipen eta ebaluazioa burutu**, dagokion memoria edo informea jasoz.

1.6.- II. Berdintasun Planean aurreikusten diren ekintzen garapenerako **kanpoko diru iturriak edo dohako baliabideak** (formazioa) bilatu.

1.7.-II. Berdintasun Planaren erregistroa lurraldeko lan ordezkartzan (REGCON).

Helburu zehatza 2

Elgoibar Ikastolaren II.Berdintasun Planaren barne eta kanpo hedapena egin, inplikaturako eragile guztiak honen jakitun izan daitezen.

Ekintzak:

- 2.1.- Ikastolako langileak** II. Berdintasun Planaren lan ildoak, helburuak, ekintzak eta garapena **ezagutu** ditzan, honen **barne hedapena** egin, horretarako dagoeneko entitatean egituratuta dauden kanalak erabiliz (klaustroa, intranet...)
- 2.2.-** Eleizalde Ikastolak **interes talde** (guraso, Ikastolen Elkarteak, erakunde publiko, hornitzaile, kolaboradore...) kontsideratzen dituen artean II. Berdintasun Planaren hedapena egin entitateak emakume eta gizonen berdintasunarekiko duen konpromisoa eta planaren helburuak ezagutzera emanaz.
- 2.3.-**Berdintasunarekiko konpromisoa Ikastolaren **harrera dokumentazioan** txertatu. Harrera dokumentaziorik egongo ez balitz, hau (edo prozedimendu bat) sortu entitateak emakume eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoaren inguruko aipamena bertan txertatuz.
-

Helburu zehatza 3

Ikastolak emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko duen konpromisoa modu argian eta esplizituan adierazi, barnera zein kanpora begira.

Ekintzak:

3.1.- Erakunde eta entitate desberdinetan berdintasun gaien inguruan antolatzen diren **ekimenetan parte hartu** (Udala, Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Emakunde, Ikastolen Elkartea, Hezkuntza Departamentua, Eragile Sozialak...).

3.2.- Berdintasun eta berdintasun ezarekin zerikusia duten **egun berezietan** (martxoak 8, azaroak 25, maiatzak 17...) ikastolaren konpromisoaren inguruko adierazpenak egin ohikoak diren euskarrien bitartez (Web orria, e-mail, boletinak, ekimenak....) ikas komunitate osoaren partaidetza ahalbidetuz.

SENTSIBILIZAZIOA ETA FORMAZIOA

02

HELBURU OROKORRA

Elgoibar kastolako langile guztiek emakume eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasunaren inguruko kontzeptuak ezagutu, ulertu, barneratu eta transmititzeko gaitasuna lantzen jarraitu dezaten beharrezkoak diren formazio eta sentsibilizazio baliabideak eskaini.

Helburu zehatza 4

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan formazio eta sentsibilizaziorako beharrezkoak diren baliabideak eskaini eta garatzea.

Ekintzak:

4.1.- Diagnostiko fasean langilegoak adierazitako formazio beharren inguruko irizpideak jarraituz, berdintasun gaietarako **formakuntza programa** diseinatu. (Formakuntza plan orokorrean txertatuz edo berdintasun gaietarako programa bereiztua sortuz).

4.2.- Hezkuntza jarduerak eta honen barne **hezkidetzak**, emakume eta gizonen arteko berdintasuneranzko bidean duen izaera estrategikoa kontuan hartuz, eguneroko jardunean balore eta jarrera berdinzalea erakutsi eta transmititu dezan, langileriari formazio zehatza eta egokitua eskaini.

4.3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan **erakundeek** (publiko edo pribatuak) **eta gizarte entitateek** antolatzen dituzten **prestakuntza jarduerak bilatu (*) eta bertan langileek** aktiboki parte hartu dezaten sustatu.

(*) <https://formakunde.eus/eu/>

Helburu zehatza 5

Ikastolaren eguneroko jardun eta antolaketari dagokionez, berauosatzen duten pertsonentzat onuragarriak izan daitezken berdintasun ekimenetan partaidetza bultzatu.

Ekintzak:

5.1.-Berdintasun esparruan beste **entitate edo erakundeek** (publikoak zein pribatuak) antolatutako jardunaldi, lan saio edo ekimenetan langilegoaren parte hartzea sustatu eta bideratu.

5.2.- Eguneroko hezkuntza jardunean **genero ikuspegia** bermatzeko **baliabide didaktikoak** eta baliagarriak izan daitezken **materialak** jasotzen dituen bilduma osatu, langileriak momentu oro erabiltzeko aukera izan dezan.

KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ETA DENBORAREN ERABILERA

03

HELBURU OROKORRA

Elgoibar Ikastolako langileek lana, familia eta bizitza pertsonala orekatu dezaten egun indarrean dauden neurriak mantendu. Etorkizunera begira sortu daitezken kontziliazio beharrak identifikatu eta hauei bide ematea beti ere zaintzaren balioa eta jarrera erantzunkidea sustatuz.

Helburu zehatza 6

Elgoibar Ikastolako langileek lana, familia eta bizitza pertsonala modu orekatuan uztartu dezaten neurriak mantentzea eta bermatzea.

Ekintzak:

6.1.- Ikastolan egun indarrean dauden kontziliazio neurriak mantendu eta irizpide objetiboetan oinarrituta etorkizunera begira egon daitezken beharretan oinarrituta adosten diren neurri berriak gehituz **kontziliazio neurrien dokumentu bereiztua** sortu. Dokumentu honetan bildu beharko dira legezkoak direnak eta hortik haratago, entitatean berezkoak diren kontziliazio neurriak.

6.2.- Kontziliazio mailan langileriak duen ezagutza bermatze aldera, neurriak jasotzen dituen **kontziliazio neurrien dokumentuaren hedapena** egin Ikastolak erabiltzen eta egoki kontsideratzen dituen kanal edo euskarrien bitartez. Eta hedapena egiteaz gain langileriak kontsultatu ahal izateko leku eskuragarri eta egokian jarri.

6.3.- Bi urtean behin kontziliazio mailan Eleizalde Ikastolako langileriak dituen **beharrak identifikatzeko metodologia** bat ezarri (galdetegia, elkarrizketak...).

6.4.- Kontziliazio mailan identifikatutako beharren analisia egin ondoren hauek **sistematizatze**ko mekanismoak ezartzea, sortu daitezken beharrei erantzun sistematizatua eta kolektiboa emanaz (langile bakarrena baino askoren kontziliazio beharrak erantzuteko neurria dela baloratuz gero).

Helburu zehatza 7

Erantzunkidetasunean oinarritutako enpresa-kultura eta kudeaketa eredua sustatu, honen barne zaintzaren (arrazoi ezberdinak direla eta adinekoen eta menpeko pertsonen zaintza edo adin txikikoen zaintza orokorrean) banaketa parekideari dagokion garrantzia eman, sentsibilizazioaren bidez balioan jarritz.

Ekintzak:

7.1.- Kontziliazio eskubidea emakume eta gizonen artean modu parekidean bermatu dadin **langileria jarrera erantzunkidearen eta berdintasun errealerako bidean zaintza lanen banaketa parekidearen balioaz sentsibilizatzeko** ekimenak burutu (lan saioak, hitzaldiak, kanpainak...).

LAN HAUTAKETA PROZESUA ETA PROMOZIOA

04

HELBURU OROKORRA

Lan hautaketan zein sustapenen sexu arrazoiengatik diskriminaziorik ematen ez dela bermatzea.

Helburu zehatza 8

Elgoibar Ikastolan hautaketa zein sustapen prozesuak emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunean egiten direla bermatzea.

Ekintzak:

- 8.1.- Entitatean **hautaketarako erabiltzen den prozedimenduan**, honen **izaera ez diskriminatorioa** bermatu dadin berdintasun arloko irizpideak gehitu. (*)
- 8.2.- Langileen hautaketaz arduratzen den pertsona edo taldeari bere lana genero ikuspegitik burutzeko beharrezko **formazioa** eskaini.
- 8.3.- Langileen hautaketa prozeduretan erabilitako **hizkuntza, irudiak, ezarritako baldintza** etab...ek sexu arloko diskriminaziorik adierazten ez dela **ziurtatzen jarraitzea**.
- 8.4.- **Sustapenaren** esparru desberdinetan (hedapena, metodologia...) emakume eta gizonen arteko **tratu eta aukera berdintasuna** aintzat hartu dela ziurtatu.

• GIDA: (*) https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/28.gida.kontratazioa.pdf

SOLDATA POLITIKA

05

HELBURU OROKORRA

Soldata politika berdinzalea dela bermatzen jarraitzea eta honen gaineko gardentasuna bermatzea.

Helburu zehatza 9

Langilegoak soldata politika ezagutu eta hau emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpideen arabera dela ziurtatzea.

Ekintzak:

9.-Emakume eta gizonen arteko ordainsarien berdintasunerako **902/2020 Dekretuak** jasotzen dituen betebeharrak jarraitzeko baliabideak ezarri:

- Urtero ordainsarien erregistroa egin.
- II. Berdintasun Planaren erregistroa burutzerakoan ordainsarien auditoria aurkeztu (4 urtetako indarraldia)

9.2.- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatze aldera enpresan dagoen **soldata politika berdinzalea** dela ziurtatzen jarraitzea.

HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA

06

HELBURU OROKORRA

Elgoibar Ikastolan langilegoaren partaidetza sustatu asmoz, II. Berdintasun Planaren baitan garatzen diren ekintzen inguruko etengabeko komunikazioa bermatzea, horretarako kanal egokia eta eraginkorra finkatuz.

Helburu zehatza 10

Elgoibar Ikastolako II. Berdintasun Plana eta bertan jasotzen diren lan ildoak, helburuak eta ekintza nagusiak ezagutzera emateko bitarteko eta kanal egokiak ezarri hauek edukiz betez.

Ekintzak:

10.1.- Elgoibar Ikastolan II. Berdintasun Planaren **garapen, jarraipen eta ebaluazioaren** baitan ematen diren urratsen, burutzen diren ekintzen **hedapenerako kanal edo euskarria** diseinatu, ezagutarazi, edukiz hornitu eta mantentzea. Horretarako egun martxan dauden kanalak erabili daitezke edo eta berriak sortu.

10.2.- Urtero diseinatzen den **Ekintza Plana** langileei **ezagutzera** eman, horretarako diseinatu den hedapenerako kanala erabiliz.

10.3.- Eguneroko hezkuntza jardunean genero ikuspegia bermatzeko **baliabide didaktikoak** eta baliagarriak izan daitezken **materialak** jasotzen dituen bilduma langileriaren esku egon dadin sotutako kanal edo euskarri honetan txertatu.

Helburu zehatza 11

Emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunaren konpromiso eta sustapenean oinarritutako enpresa irudia sendotzea hizkuntza eta komunikazioa horretarako tresna bilakatuz.

Ekintzak:

11.1.- Hizkuntza eta komunikazio ez sexistaren jarraibideak jaso eta langileen eguneroko jardunerako (barne zein kanpo komunikaziorako) baliagarria izango den **irizpideen barne gida** bat osatu.*

11.2.- Ikastolan barne zein kanpo komunikazioaz arduratzen diren pertsonen **formazioa eskaini**, egiten diren komunikazioetan hizkuntzaren eta iruditegiaren bitartez entitatearen izaera berdinzalea eta konpromisoa ager dadin.

11.3.- Web orriaren eta barne zein kanpo komunikaziorako erabiltzen diren euskarrien **etengabeko berrikuspena egin**, hizkuntza zein komunikazioaren erabilpen egokia egiten dela bermatuz eta dagokionean hobekuntzak aplikatuz.

(*) * https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/eusk_gida_eu.pdf

Helburu zehatza 12

Elgoibar Ikastolan hizkuntza politikak emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea duela bermatzea.

Ekintzak:

12.1- Orain arte entitatean helburu desberdinetarako erabiltzen diren baliabideen/euskarrien (paperean zein digitalak) **errebisioa** burutu, **hizkuntza berdintasun irizpidea** bermatzen dela **ziurtatuz**.

12.1- Entitatearen jardunerako sortzen diren baliabide/euskarri (paperean zein digitalak) guztietan **hizkuntza politikan berdintasun irizpidea** bermatzen dela **ziurtatzea**.

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA GENERO IKUSPEGITIK

07

HELBURU OROKORRA

Genero ikuspegia duten lan arriskuen prebentziorako politiken ezarpena, amatasuna, aitatasuna eta edoskitzea baino haratago.

Helburu zehatza 13

Elgoibar Ikastolan lan arriskuen prebentzioa genero ikuspegia duela bermatzea, arrisku psikosozialak kontuan hartuz.

Ekintzak:

13.1.- Genero ikuspegitik eman daitezken **lan arriskuen inguruko analisia** burutu. Analisi honetan jazarpen sexual eta sexistaren arriskuak zein zaintza ardurek sortzen ditzaketenak gehituz. Horretarako prebentzio zerbitzuaren (kanpoko edo barnekoa) inplikazioa beharko da.

13.2.- Analisi honen **ondorioak** jasotzen dituen dokumentua osatu eta **langilego guztiari helarazi**, beharrezkoa den kasuetan bere aplikazioa bermatuz.

LANEAN JAZARPEN SEXUAL ETA SEXISTAREN PREBENTZIOA | 08

HELBURU OROKORRA

Lanean jazarpen sexual eta sexistaren prebentzioa eta eman litezken kasu eta egoerak antzeman eta gabetzeko neurriak hartzea.

Helburu zehatza 14

Lanean jazarpen sexual eta sexista ez jasateko eskubidea aitortu eta edozein egoeratan entitateak erantzun irmoa emango duela bermatzea.

Ekintzak:

14.1.- Lan hitzarmenean jasota dagoen jazarpen sexual eta sexistaren **protokoloa aztertu** eta **beharrezkoa balitz** hau ikastolaren errealitate eta jardunera **egokitze prozedura** finkatu. Gidak:

- https://www.inmujeres.gob.es/areasTematicas/IgualdadEmpresas/docs/AcosoSexualRazonGenero/Protocolo_Acoso_Sexual_y_Por_Razon_De_Sexo_2021.pdf

14.2.- Protokoloa azken legeetara egokitzea:

- 10/2022 Lege Organikoak, sexu askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- 4/2023 Legea, trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko.

14.3.- Protokoloaren aplikazioan ardura duten pertsonen honen kudeaketarako beharrezko **prestakuntza** ematea.

14.4.- **Langileriak protokoloa ezagutu** dezan honen hedapena egin, beharrezkoa den kasuetan aplikatuko dela bermatuz. Hedapen hau egiterakoan gaiarekiko langileria sentsibilizazioa landu. ADI!! Lege betebeharra.

14.5.- Protokoloaren **ebaluazioa eta eguneratzea**, berme osoz indarrean mantentzen direla ziurtatuz. Horretarako hau berrikusi eta beharrezkoak diren moldaketa eta egokitzapenak aplikatzeko maiztasuna finkatu.

BEZEROAK ETA HORNITZAILEAK

09

HELBURU OROKORRA

Bezero, hornitzaile eta kolaboratzaileen artean Elgoibar Ikastolan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa indartu.

Helburu zehatza 15

Bezeroekin dauden hartu emanetan eta eskaintzen den hezkuntza proiektu zein zerbitzuetan berdintasun printzipioa errespetatzen dela ziurtatu.

Ekintzak:

15.1.- Elgoibar Ikastolako ikasleen familiei bertan eskaintzen den hezkuntza proiektuan, zerbitzu guztietan eta kudeaketa ereduan emakume eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasunerako entitateak dituen irizpideak adierazi, ohikoak diren kanalen bidez.

15.2.- Elgoibar Ikastolak dituen **hornitzaileen analisia** egin eta eskaintzen duten zerbitzuaren arabera emakume eta gizonen berdintasun arloan betebeharrak aztertu eta egoki ikusten bada, aplikatu.

Helburu zehatza 16

Hornitzaile eta kolaboratzaileen aukeraketa berdintasun printzipioaren arabera egiten dela ziurtatu.

Ekintzak:

16.1.- Hornitzaile eta kolaboratzaileen aukeraketarako berdintasun irizpideak kontuan hartu, beri ere dagokionean.

16.2.- Elgoibar Ikastolak dituen hornitzaileen analisia egin eta eskaintzen duten zerbitzuaren arabera emakume eta gizonen berdintasun arloan **betebeharrak aztertu** eta egoki ikusten bada, aplikatu.

16.3.- Berdintasun irizpide horiek hornitzaile eta kolaboratzaileen artean **ezagutzera eman**.
